

Ingurumen Buletina

- 1. Sindikatuen Asanblada (Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioa)***
- 2. Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Konferentzia (Rio+20)***
- 3. Justizia Soziala eta Ingurumen Justiziarako Herrien Gailurra***
- 4. Bideo gomendatua***

Ekainaren 20tik 22ra, Rio de Janeiro, Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen Konferentzia bildu da, dagoeneko Rio+20 bezala ezagunago dena. Konferentzia hau dela eta bilera alternatiboak ere egin dira, Sindikatuen Asanblada eta Herrien Gailurra. Buletin hau Rion gertatu denaren monografiko bat da.

1. Sindikatuen Asanblada (Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioa)

Sindikatuen Asanblada Nazio Batuen Goibileraren aurretik egin zen, bertan 56 herrialdetako 66 sindikatuk parte hartu zuten eta etorkizunerako akzio plan bat onartu zen. Hiru egunez 5 lan taldetan eztabaidatu eta bukaeran [erresoluzio](#) bat onartu zen. Hauek dira 5 lan taldeak eta asanbladan ateratako ondorioen laburpena:

- Enplegu berdeak, trantsizio justua, emakume eta gazteentzat aukerak eta etorkizunerako erronkak.
- Elikagaiak, energia eta ura eskuratzeko akzesibilitate jasangarria.
- Klima aldaketa eta energia.
- Akzio sindikala garapen jasangarrian: parte hartze eskubidetik negoziazio kolektibora.
- Produktu kimikoen kudeaketa arrazionala.

Asanblada Sindikaleko ondorioen laburpena

Garrantzitsua da sindikalismoak ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko sistemaren aldaketa ezinbestekotzat jotzea, gaur egungo garapen eredia jasanezina baita: lehengai eta baliabide energetikoak ez dira bukaezinak eta garestiak dira, eta

hauen kontsumo jasanezinak eragin sozial eta ingurumeneko larriak ditu. Jarduera ekonomikoaren jasangarritasunerako aldaketa ez da soilik sakrifizio banaketa bat izan behar, aukeren banaketa justu bat ere izan behar da. Jasangarriagoak diren enplegu berriak sortu behar dira, baina egungo enpleguak ere jasangarriago egin behar dira. Trantsizio justuak justizia soziala, kohesio soziala eta ingurumena bermatuko dituen ekonomia jasangarrirantz eramango gaituen eboluzioa bermatuko dituen politika publikoak bultzatu behar ditu. Aldaketa prozesu honek helburu ambiziosoak behar ditu.

Planetako biztanle guztiei oinarrizko baliabide eta zerbitzuak izateko eskubidea bermatzea da posible den mundu jasangarria eraikitzeke erronka nagusia. Lurraren baliabide naturalen ahalmena gainditu gabe ondorengo belaunaldien eskubideak bermatzea ezinbesteko obligazioa da. Efizientzia energetiko baxuko eszenatoki honetan, sindikatuen deklarazioak energia berriztagarrien alde egiten du, hauek energia eskuratzea posible egiten dute modu garbiago, seguruago eta justuago batean, eta gainera enplegua sortzeko iturri garrantzitsua da, mundu osoan 3,5 enplegu sortu ditu jada.

Elikagaien prezioaren igoerak planetako txiroen kantitatea ehunka milioira areagotzea suposatu du. Merkataritzaren eta finantza merkatuen desregularizazioak elikaduran eragin du, elikagai industriako multinazionaleri fabore eginez. Merkataritza

mundialaren eraginak elikagai defizita duten herrialde txiroen elikagai inportazioen igoera handian ikusi daitezke, herrialde hauek bost urtetan hilkortasun indizea bikoiztu dute. Hiru baliabide nagusiak (lurra, ura eta energia) ere desberdintasunen krisiarekin bat egiten dute, krisi hau etengabeko pribatizazioak eta merkatuen dinamikak dominatzen dituen enpresa pribatuen kontrolak bultzatu du. Sistema kapitalistaren eboluzioari eta bizitzako eta gizarteko alor guztiak pribatizatzeke joerari lurraren merkantilizazioa eta ondasun komunaren pribatizazioa gehitu zaizkio.

Baliabide eta zerbitzuetarako akzesibilitatea giza eskubide bezala ulertzeak politika publikoak eta beharrezko neurriak garatzea dakar berarekin, horrela pertsona guztien akzesibilitatea modu jasangarrian bermatzeko.

Klima aldaketara garamatzen emisioen kontzentrazioa garapen eredu estraktibista baten ondorio bezala interpretatu behar da, erregai fosilen erabileran oinarritua dago, batez ere gizarte aurreratuenak izan dira onuradun eta bere ondorioak planetaren etorkizuna larriki konprometitzen dute. Klima aldaketara modu ezberdinean egin dute ekarpena gizarteko atal ezberdinek eta herrialdeek, eta ezberdintasun handiak daude baita klima aldaketari aurre egiteko ahalmenean ere. Garapen gutxiagoko herrialdeak dira, historikoki klima aldaketara ekarpen txikiagoa egin dutenak, bere eraginak lehenago eta modu gogorragoan sufritzen

ari direnak.

Guzti honek sindikalismoa erronka izugarriaren aurrean jarri du, eta aurre egiteko aldaketa traszendentek praktikan jartzea ezinbestekoa da. Zer eta nola produzitzen dugun eta bakoitzak zer ekoiztuko duen eta zein helbururekin berdefinitu behar da.

Rio 92tik 20 urte pasa direnean gizateria aurretik ezagutu ez den arrisku mailan aurkitzen da. Krisi klimatikoa, ingurumenekoa, energetikoa, elikagaiena, osasunekoa eta lanekoa okerrera doa. Klima aldaketaren aurkako borroka sistemaren kritikaren barnean sartu behar da. Oinarrizko eragileak ezin dira alde batera utzi: kapitalismoa eta ekoizpen eta kontsumo eredu industrialak. Politikak benetako garapen jasangarrira zuzendu behar dira, ekoizpen eta kontsumo ereduaren aldaketan oinarrituz eta justizia soziala, berdintasuna eta demokrazia parte hartzailea aldaketa politikora ezinbesteko erremintatzat hartuz.

Garapen jasangarrirantz aurrera pausuak emateko oinarrizkoa da erabakiak hartzeko prozesuak parte hartzaileak izatea, eta horrela izan behar da baira lantokietan. Negoziazio kolektiboa ezinbestekoa da enpresen jasangarritasun ekonomikoa eta soziala bermatzeko. Sindikatuak prest daude beraien lan eremua zabaltzeko eta materialen eta baliabideen esplotazio mugak onartzen dituzte. Ingurumen gaiak estrategien parte izatera pasa dira eta merkatu eta kapitalean soilik oinarrituriko

ikuspuntuak orekatu dituzte elementu sozial eta ingurumenekoekin. Negoziazio kolektiboak garapen jasangarrian dituen helburuak hauek dira:

- Lan harremanei ingurumena eta arlo soziala erregulatzeko falta zaizkien legeak ordezkatu.
- Enpresaren ingurumen testuinguruan inplizituak diren eskubide eta betebeharrak esplizitu bihurtu.
- Enpresaren arloan langileen eta enpresariaren konpromiso sozial eta ingurumenarekikoa konkretatu eta garatu.

2. Nazio Batuen Garapen

Jasangarriaren Konferentzia (Rio+20)

1992ko Lurraren Gailurretik 20 urte pasa direnean egin da Rio+20 Gailurra, leku berean, Rio de Janeiron. Orduan Ingurumenaren eta Garapenaren inguruko Rioko deklarazioa sinatu zen, non garapen jasangarrirako 27 printzipio ezartzen ziren. Deklarazio hura 2012an sinatu dena baino anbiziosoagoa izan zen eta konpromiso gehiago hartzen zituen. 20 urte baino gehiagoko atzera pausua eman dugu.

Akordio bat lortzeko 2 urte negoziatzen egon ondoren, sinatutakoa [dokumentu](#) ahul bat da, ezer konkreturik gabe, eta ingurumenaren babesa eta emakumeen erreprodukzio eskubideen alorrean atzerapenak izan dituenak. "Garapen Jasangarrirako Helburuak" planteatzen dira, zeinak 2015 ondoren Nazio Batuen testuinguruan zehaztuko direnak. Antzeko beste bileretan bezala,

eزتara iritsi gabe luzapen bat adostu da. Honek agerian utzi du prozesu multilateraletan aurrera egiteko dagoen borondate politiko eza.

Rio+20 goibilerak justizia soziala eta ingurumenekoa hobetzeko konpromisoak eta proposamenak zehaztu behar zituen. Baina ez da Goibilerari edukirik emango dion inongo neurririk onartu, ez plan, konpromiso, erabaki edo fondo ekonomikorik ere injustizia soziala eta ingurumenekoarekin bukatzeko, ez eta ekoizpen eta kontsumo ereduaren beharrezko aldaketarako ere. Goibilerak ofizialean parte hartu zuten gobernuen gehiengoak kontrako norabidean doazen akordioak nahi zituzten eraman Riotik, hau da, justizia sozialean atzera pausua eman eta duela 20 urte Rion sinatutakora ere ez iritea. Ez daude prest pobrezia-rekin bukatzeko babes sozialerako gutxieneko bat onartzeko, ez dira ingurumen krisiari aurre egiteko soluzio faltsu teknologikoak baztertzen, finantza transakzioei tasak ezarriz kapital handiei mugak jartzea baztertu dute, ez dituzte errebindikazio sindikalik onartu,... Baina guzti hau "personak garapenaren oinarri direla eta horregatik mundu justua, bidezkoa eta barneratzailea" lortzeko egiten dutela diote. Gobernuak ez dira gai izan duela 20 urte harturiko konpromisoak betetzeko, ez dute gertatutakoaren ikuspuntu kritikorik ere. Enpresek ordea ez dute denborarik galtzen, negoziazio hauetan boterea dutenak beraiek dira eta gobernuak enpresa handiek eta

kapitalak esandakoa egiten dute. Etxea berdez margotu nahi da baina ezer konpondu gabe, egin behar dena guztia aldatzea denean, egungo ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak barne.

3. Justizia Soziala eta Ingurumen **Justiziarako Herrien Gailurra**

Herrien Gailurra ekainaren 15 eta 23 bitartean egin zen. Bilera alternatibo hau Nazio Batuek proposaturiko Ekonomia Berdeari aurre egiteko antolatu zen. Ekonomia berdea enpresentzat negozioa egiteko bide berri bat da, beti ere botere politikoaren esku hartzearekin. Ekonomia berdea mozorrotutako kapitalismoa da, sufritzen ari garen krisi sistemikoa areagotuko duena. Sistema da aldatu behar dena.

Lehen egunetan ondorengo lan taldeetan banatuta egin ziren eztabaidarako plenarioak:

- Eskubideak, justizia soziala eta ingurumenekoagatik.
- Ondasun komunen defentsan eta naturaren merkantilizazioaren aurka.
- Elikadura Burujabetza.
- Energia eta industria estraktiboa.
- Lana: Beste ekonomia batengatik eta gizarte paradigma berriengatik.

Sindikatuak, nekazariek, ekologistek, indigenek eta emakumeek besteak beste, plenario huez gain, auteogestionaturiko hainbat ekimenetan parte hartu dugu. Azpimarratzekoa da, izaera oso ezberdineko taldeak izan arren, ados jarri garela krisi

ekonomiko sozial eta ingurumenekoaren eragile estrukturalak identifikatzerakoan eta baita ekonomia berdeak planteatzen dituen soluzio faltsuak salatzerakoan ere.

Lan taldeetan aritu ondoren, hausnarketak eta alternatibak azaldu ziren asanbladak egin ziren, sufritzen ari garen krisi sozial eta ingurumenekoari benetako soluzioak eskaintzeko. Denon artean [deklarazio](#) bateratu bat adostu da, etorkizunerako hausnarketa eta alternatibak jasotzen dituenak.

Eragile estrukturalak eta soluzio faltsuak

Krisi multidimentsional (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) honen eragile estrukturalen artean dago ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak. Sistema hau gutxi batzuen eskutan boterea pilotzean oinarritzen da eta honek ezberdintasun handiak sortzen ditu. Eredu patriarkala, homofobia eta arrazista da, giza eskubideak etengabe urratzen dituenak. Kapitalismoak lanaren prekarietatera eta siniestralitate garaizmatza, eta sindikalizazio eta negoziazio kolektiborako eskubidearen aurka doa. Lanaren banaketa internazionalak, globalizazioak eta baliabide naturalen gehiegizko esplotazioak Hegoaldeko herrialdeak pobrezia eraman ditu. Gainproduktzio industrialak, kontsumismoak, gehiegizko kontsumo energetikoak eta sortzen ditugun gehiegizko hondakinak planetaren ziklo naturala aldatu dute. Ekonomia berdeak naturaren merkantilizazioa bilatzen du oraindik privatizatu gabe dauden baliabide natural

apurrekin negozioa egiteko, beti botere politikoa esku hartzearekin.

Honek krisia eta ezberdintasunak areagotu, eta ingurumen eragin larriak sortuko ditu: klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, lurren pilaketa, uraren pribatizazioa, famili nekazaritzaren suntsiketa, monokultiboak, kutsadura transgenikoa,... Eta zer planteatzen du ekonomia berdeak krisi honetatik irtetzeko? Soluzio faltsu gehiago: ur azpiko petrolioak, fracking-a, zentral hidroelektriko handiak, uraren pribatizazioa, erraustegiak, energia nuklearra, agrokonbustibleak, deforestazioaren aurkako REDD+ programa, biologia sintetikoa, transgenikoak... sistemaren aldaketarako lekurik uzten ez duten teknologian oinarrituriko proiektuak.

Gure soluzioak

Alternatibak gure herrietan, gure historian, gure ohituretan eta gure jakiturian daude. Ezinbestekoa da espazio publikoen defentsa hirietan, gestio demokratikoa eta herriaren parte hartzea. Ekonomia kooperatiboa eta solidarioa behar dugu, ekoizpen, banaketa eta kontsumo paradigma berri bat, eredu energetikoa aldatzea, eta elikadura burujabetza. Hauek dira benetako alternatibak egungo sistema agro-urbano-industrialaren aurrean.

Ondasun komunen defentsa giza eskubideak eta natura bermatzean eta solidaritatean oinarritu behar da. Trantsizio justua exijitzen dugu, zeinek lanaren kontzeptua zabalduko duen, emakumeen lana aitortuko duen, eta produkzioaren eta

erreprodukzioaren oreka ekarriko hau emakumeen eginbeharra soilik izan ez dadin. Trantsizio justu honek organizatzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidea bermatuko du. Babes eta gizarte segurantzaren sare zabal bat ere bermatuko du, giza eskubide gisa ulertuko dena, eta lan duinak bermatuko dituzten politika publikoak ere bultzatu behar dira.

Herriek erabaki behar dute zertarako eta zeinentzat bideratuko diren ondasun komunak eta baliabide energetikoak, eta ekoizpenaren kontrol demokratiko eta herrikoa eskuratuko dute. Energia berriztagarrian oinarrituriko energia eredu ezarri behar da, herritarren hornikuntza energetikoa bermatuko duena eta ez enpresa handiena. Feminismoa aitortzen dugu berdintasuna eraikitzeke erreminta gisa, emakumeek beraien gorputzengan eta sexualitatean duten autonomia eraikitzeke eta indarkeriarik gabeko bizitza bermatzeko. Aldi berean aberastasunaren banaketaren, diru sarreren banaketaren, arrazakeriaren kontrako borrokaren, lurra izateko eskubidearen bermearren, ingurumen osasuntsua eta ura izateko eskubidearen, hezkuntzaren, kulturaren, adierazpen askatasunaren, eta komunikabideen demokratizazioaren premia aitortzen dugu.

Ekonomia lokalen indartzeak ekonomia jasangarrien eraikuntza, naturaren defentsa eta taldeko solidaritatea bermatzen ditu.

Agenda bateratua

Gizartearen aldaketak ekintzetan

elkarlana, artikulazioa eta mundu osoan martxan dauden kapitalismoari aurre egiteko erresistentzia eta alternatiba agendak exijitzen ditu. Herrien Gailurrean elkarturiko organizazio eta mugimendu sozialek ondorengo borroka ildoak planteatu ditugu:

- Estatu eta herrialdeen militarizazioaren aurka.
- Organizazio eta mugimendu sozialen kriminalizazioaren aurka.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka.
- Lesbiana, gay, bisexual, transexual eta transgeneroen aurkako indarkeriaren aurka.
- Korporazio handien aurka.
- Zor ekonomiko injustuen ordainketaren inposizioaren aurka eta hauen herri auditorien alde.
- Herriek naiz hiri zein landa eremuan lurra izateko duten eskubidea bermatzearen alde.
- Kotsularako, eta aurretiazko baimen libre eta informaturako eskubidearen alde, printzipio loteslean eta fede onean oinarritua.
- Elikadura burujabetzaren eta elikagai osasuntsuen alde, agrotoxikoen eta transgenikoen aurka.

-Eskubideen bermea eta lorpenaren alde.

- Orain Paraguayan gertatu den bezalako estatu kolpe militar eta instituzionalen arriskuan dauden herri eta herrialdeekiko elkartasunaren alde.

- Herriek beraien ondasun komunengan izan behar duten kontrolaren alde eta merkantilizazio intentzioen aurka.

- Egungo energia ereduaren aldaketaren alde.

- Komunikabideen demokratizazioaren alde.

- Zor sozial eta ekologikoaren aitorpenaren alde.

- Eta mundu mailako GREBA OROKORRAREN eguna eraikitzearen alde.

Gure herrietara bueltatu gara borrokan eta erresistentzian jarraitzeko beharrezko konbergentziak sortu nahian eta sistema kapitalista eta ekonomia berdea bezalako bere kopien aurka egiteko.

4. Gomendaturiko bideoa

Uruguako presidentek Rio+20 gibileran, Nazio Batuen Plenoan, foro horretan ohikoa ez den hitzaldia egin zuen. Ikusteko klikatu [hemen](#).